

Iepa, irakurle! Hauxe duzu zure txokoa, inguruko deialdien berri emateko edo zeure iritzia eta kezak plazaratzeko. Deitu 943 300 222 telefonora edo bidali mezua 943 300 255 faxera edo **barkatu_ama@egunkaria.com** posta elektronikora. **Animatu!**

Internet en irristatzen

irristatzen@egunkaria.com
→ jabi zabala

‘Barrapunto’-n agertua

Indymedia Euskal Herria sortze prozesuan dago oraindik. Askotan aipatu dugun informazio gune aurrerakoi, ireki eta horizontalaren euskal edizioa antolatzen ari da euskal internauta talde bat. Egunotan alderdi teknikoa dute eztabaidagai nagusi, software librean erabiliko dutela onartuta, edizio automatizatua egiteko zein sistema erabiliko duten aztertzen ari dira, eta zer nolako zerbitzaria erabiliko duten, non kokatuko dituzten makinak eta horrelako gaiak.

Baina iragan astean «airean zegoela» iragarri zuen norbaitek Barrapunto *weblog*-ean. Albistegi honetan oso informazio interesgarriak ageri ohi dira, software librearen inguruan sortua

izateak ematen dion ezkerreko ikuspuntu batetik. Albistea idatzi zuenak *Indymedia Euskal Herria* agertzen den webgune baten helbidea eman zuen. Baina bertan kausituko duguna ez da probetarako erabiltzen ari diren txantiloia baizik.

Bada, iragarpenak erantzunak eta eztabidak eragin ditu, horretaz jakitun ez zeuden internauta batzuek sortze dagoen euskal IMC horren kontrako jarrera agertu baitute. Iruzkun batzuetan «ETAren kontra ezer idazten ez delako» kezkatuta ageri dira alde zaurretik, nahiz eta oraindik txantiloiaz aparte ezer argitaratu ez den. Horrelako erreakzioak, bertoko Indymedia bultzatzen ari direnen esanetan «etorriko denaren lagin baino

ez dira», komunikabide alternatibo legez kontrolagaitza denez, ez baitaio gustatuko botereari. Italiako Indymediak eta Jerusalemgoak miaketak eta errepresioa jasan behar izan dituzte jada. *Indymedia Euskal Herria*n bere ekarpena egiteko gogoia duenak posta zerrendan eman dezake izena, bertako eztabaidetan esku hartzeko.

Baina *Barrapunto*-n bestelako albisteak ere badatoz. Ingele-



sezko *slashdot* webgunearen erdarazko bertsio moduan sortu zen, ikuspegiz eta gaiez antzekoa, baina hartatik erabat independentea. Bere jatorri linuxeroaren adierazle, arlo teknikoari buruzko albisteak eta informatikari buruzkoak asko badira ere, kutsu aurrerakoi hori igartzen da, informazio alternatibo-

ak ematen baititu. Esate baterako, *Radikal* aldizkaria.

Radikal-ena Interneteko aferarik zaharrenetako dugu. Duela zazpi urte Alemaniako ezker autonomoaren aldizkaria debekatu izan zen bertan, ustez sabotaje ekintzak egiteko argibideak ematen zituelako. Ondoren, Holandako Internet zerbitzari batean kokatu zuten, eta Alemaniako Gobernuak eginahalak egin ditu bertatik ere ken dezaten. Berriki Holandako epaileek *Radikal*-eza ba dezatela agindu dute, baina berriaz agertu da Italiako beste zerbitzari batean. Botereak oraindik ez du barneratu sarearen izaera librean.

Helbideak:

- www.barrapunto.com ■ euskalherria.indymedia.de
- indy.txipinet.com ■ slashdot.org
- www.ecn.org/radikal

BESTELAKO ENERGIA BATEN ALDE IRUÑEAN



Bihartik igandera bitartean Europako Batzordeko energia ministroen bilera egiteko asmoa dute Iruñean, eta hori dela eta, bestelako energia politika bat aldarrikatzeko ekitaldiak antolatatu dituzte. Hogeita hamabostetik gora biltzen dituen Iruña 2002 Foroak antolatu ditu ekitaldiak eta bihartik igandera bitartean luzatuko dira. Beste antzeko bileretan gertatu bezala, globalizazioaren aurkako mugimenduak bere ahotsa entzunarazi nahi du asteburu honetan Iruñean. *Beste energiarik badugu; beste mundurik badago* lelopean burutuko dira ekitaldiak

Antzerkia/Iruñea. Urte honetako ekaian kafe antzerki, umorezko antzerki eta sakelako antzerki lehiaketa egingo da Mira antzokian. Sari bikainak izango dituzte sariketa honetan garaile gertatzen direnek: 3.000 euro, 1.800 euro eta 1.200 euro. Sariketan interesatuta dauden talde denek txosten bana igorri beharko dute Mira antzokira (26 Posta kutxatila, 31.080 Iruñea). Lehiaketan parte hartzen duten taldeei antolakuntzak bidaia eta egoaldia ordainduko dizkie.

Lehiaketak

Gaztemaniak! maketa lehiaketa / Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak Gaztemaniak! maketa lehiaketako deialdia egin du. Lehiaketa honen xedea profesionalak ez diren Gipuzkoako musika talde berriak sustatzea da. Lanak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da. Helbidea: Gaztemaniak Programako 6. Maketa Lehiaketa. Gaztegunek: Craj / Gazte Informazioa, Anoeta pasealekua 28, 20.004 Donostia.

Itzulpenak/Gasteiz. Filologia, geografia edo historia inguruko testuen itzulpenak aurkeztu behar dira lehiaketa honetan, 10 eta 30 folio artekoak eta argitaratu gabeak. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 22an amaituko da. Informazio gehiago Arabako EHUren Errektoreordetzan eskura daiteke.

Erakusketak

‘Gorria’ / Zumaia. Idoia Beratarbide-
ren eta Ane Gaztelumendiren *Gorria* erakusketa Zumaiaiko Oxford aretoan dago ikusgai, heldu den hilaren 30a arte.

Judas Arrieta / Hondarribia. Judas Arrieta Hondarribiko manga artista ezagunak bere herriko Muara elkartean jarri ditu bere lanak. Erakusketan 101 marrazki daude eskegita, eta guztiek dute lotura manga arte-

EGITARAUA

OSTIRALA 26

- 17.00etan: Kalejira batek «energia txarreko» gune batzuk bisitatuko ditu [ABLE bat, espetxea, udaletxea, bankuetxeren bat...], «energia txar» horiek desagertarazteko.
- 20.00etan: Masa Kritikoa bizikleta martxa Gazteluko plazatik.
- Gaez: Kalea aldarrikatu jaia.

LARUNBATA 27

- 10.00etatik 14.00etara: Eztabaidarako foroak burutuko dira kalean. Energia, ura, garraioa eta demokrazia partehartzaileak izango dira eztabaiden ardatzak. Eztabaidak burutzen diren bitartean, kale ikuskizunak (antzerkia, musika) izango dira.
- Eguerdian: Maimur antzerki taldeak Paris Babia antzezlan ibiltaria emango du Alde Zaharrean.
- 14.30ean: Herri bazkaria Alde Zaharreko gaztetxean.
- 18.00etan: Manifestazio Golem zinematokietatik hasita. Ondoren antzerkia izango da Itoitzekiko Elkartasuna taldekoen eskutik.
- Gaez: Kontzertua.

IGANDEA 28

- 10.00etan: Ekintza sorpresa Alde Zaharreko gaztetxean, AHTren Aurkako Asanbladak antolatuta.

arekin. Apiril osoa iraungo du erakusketak.

Juxe Areta/Bergara. J. A. Areta *Juxe* argazkilaria lanak Bergarako gaztetxean ikusi ahal izango dira apirila amaitu bitartean. Juxek hainbat kontzertutan ateratako argazkiak biltzen ditu erakusketak.

MATXITXA
MUSIKA ERAGINTZA MANAGEMENT
su ta gar-mare-a-berri txarrak
π.l.t.-ekon-buitraker
dank-ost-anje duhaldē
zēa mays-flitter-narco
habēas corpus-el combo linga
freak XXI-eskorzo
deshēchos (hechos contra el decoro)
Tels. 948 18 09 18 - 696 462 411
E-mail: management@matxitxa.com